

# Samsung GT-B3310

## Erabiltzailearen eskuliburua

SAMSUNG

Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

Baliteke eskuliburu honen edukia zure telefonoarekin erabat bat ez etortzea, telefonoaren softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

SAMSUNG ELECTRONICS

**Adostasun-deklarazioaren laburpena**

SAMSUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

World Wide Web

http://www.samsungmobile.com

Printed in Korea

Code No.: GH68-xxxxxA

Spanish. 04/2009. Rev. 1.0

# GT-B3310

# Erabiltzailearen eskuliburua



SAMSUNG

# Eskuliburuaren erabilera

Zure telefonoaren funtzioak eta zerbitzuak azaltzeko bereziki diseinatua da erabiltzailearen eskuliburu hau. Azkar hasteko, ikus "Telefono mugikorraren sarrera" "Telefono mugikorra instalatzea eta prestatzea" eta "Oinarrizko funtzioen erabilera".



## Jakinarazpenak egiteko ikonoak

Hasi aurretik, eskuliburu honetan agertzen diren ikonoak ezagutzea komeni da:

OHARTARAZPENA — **Oharra:** zure telefonoa edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak

KONTUZ — **Kontuz:** zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak

**Oharra:** oharrak, erabilera-gomendioak edo informazio gehigarria.

▶ **Ikus:** lotutako informazioa duten orrialdeak. Adibidez: ▶ 2. or (esan nahi du 12. orria ikusi behar duzula)

→ **Ondoren:** pauso bat emateko hautatu behar dituzun aukeren edo menuen ordena. Adibidez: Menuen moduan, hautatu **Mezuak -» Mezua sortu** (horrek esan nahi du **Mezuak**, eta, ondoren, **Mezua sortu** hautatzeko).

[] **Kortxeteak:** telefonoko teklak. Adibidez: [ ] (pizteko eta menuetatik irteteko tekla adierazten du)

<> **Parentesi angeluarrak:** pantaila bakoitzeko funtzioak kontrolatzen dituzten tekla programagarriak. Adibidez: **<OK>** (OK funtzio-tekla)

## Copyright-aren informazioa

Gailu honen teknologia eta produktu guztien eskubideak haien jabeenak dira.

- Bluetooth SIg, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan. Bluetooth QD ID: B015648
- Java™ Sun Microsystems, Inc.-en marka komertziala da.

CE0168

# edukia


## Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa ........ 2

Segurtasunari buruzko oharrak ........ 2
Segurtasun-neurriak ........ 4
Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua ........ 7

## Telefono mugikorraren sarrera ........ 12

Bilgarria kentzea ........ 12
Telefonoaren diseinua ........ 13
Teklatua ........ 14
QWERTY teklatua ........ 16
Pantaila ........ 17
Ikonoak ........ 18

## Telefono mugikorra instalatzea eta prestatzea ........ 19

SIM txartela eta bateria sartzea ........ 19
Bateria kargatzea ........ 21
Memoria-txartela sartzea *(hautazkoa)*. ........ 22

## Oinarrizko funtzioen erabilera ........................24

Telefonoa piztea eta itzaltzea ........................24
Menuetara sartzea ........................25
Lasterbideen tresna-barrako testuinguru-menuen erabilera ........................25
Mezularitzako lasterbideak erabiltzea lasterbideen moduan ........................26
Telefonoa pertsonalizatzea ........................26
Deien oinarrizko funtzioak erabiltzea ........................28
Mezuak jasotzea eta bistaratzea ........................30
Kontaktuak gehitzea eta bilatzea ........................32
Kameraren oinarrizko funtzioak erabiltzea ........................33
Musika erreproduzitzea ........................34
Web-ean nabigatzea ........................35

## Funtzio aurreratuak erabiltzea ........................37

Deien funtzio aurreratuak erabiltzea ........................37
Agendaren funtzio aurreratuak erabiltzea ........................40
Mezularitzako funtzio aurreratuak erabiltzea ........................41
Kameraren funtzio aurreratuak erabiltzea ........................43
Musikaren funtzio aurreratuak erabiltzea ........................46

## Tresnak eta aplikazioak erabiltzea ........................49

Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea ........................49
Larrialdiko mezu bat aktibatzea eta bidaltzea ........................50
Mugikor-bilatzailea aktibatzea ........................51
Gezurrezko deiak egitea ........................52
Ahots-oharrak grabatzea eta erreproduzitzea ........................53
Sarean argazkiak eta bideoak ikustea ........................54
Java aplikazioak eta jokoak erabiltzea ........................54
Munduko erlojuak sortzea eta bistaratzea ........................55
Alarmak konfiguratzea eta erabiltzea ........................56
Kalkulagailua erabiltzea ........................57
Moneta edo neurriak bihurtzea ........................57
Atzera kontatzeko tenporizadore bat konfiguratzea ........................57
Kronometroa erabiltzea ........................57
Zeregin berri bat sortzea ........................57
Testu-ohar bat sortzea ........................58
Egutegia administratzea ........................58

## Arazoen konponketa ........................a

## Aurkibidea ........................d

# Erabilerari eta segurtasunari buruzko informazioa

Bete neurri hauek egoera arriskutsuak edo ilegalak saihesteko eta telefono mugikorraren errendimendua ahalik eta handiena izatea bermatzeko.



KONTUZ

## Segurtasunari buruzko oharrak

### Ez utzi telefonoa haurren eta etxeko animalien eskueran.

Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haurren eta animalien eskueran. Pieza txikiek asfixia edo lesio larriak eragin ditzakete, irentsiz gero.

### Babestu entzumena



Entzungailuak ozenegi jartzeak entzumena kaltetu dezake. Elkarrizketetarako musika entzuteko, erabili gutxieneko bolumen-konfigurazioa.

### Kontuz instalatu telefono mugikorrak eta gainerako tresnak

Ziurtatu telefono mugikor osoa eta zure ibilgailuak instalatutako lotutako tresnak modu ziurrean muntatuta daudela. Saiatu ez jartzen telefonoa eta osagarriak airbag-a zabaltzen den eremuan edo hortik hurbil. Haririk

gabeko tresnak behar bezala instalatuta ez badaude eta airbag-a puztu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

## Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak

- Samsung-ek onartutako eta bereziki telefonoarentzat diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek kalte larriak eragin diezazkiokete telefonoari.
- Ez bota inoiz bateriak edo telefonoak sutara. Bateria edo telefono erabiliak botatzean, errespetatu tokiko araudi guztiak.
- Ez jarri bateriak edo telefonoak beroa sortzen duten gailuen gainean, hala nola mikrouhin labeen, berogailuen edo erradiadoreen gainean edo barruan. Bateriak lehertu egin daitezke gehiegi berotuz gero.
- Inoiz ez zanpatu edo zulatu bateria. Ez jarri bateria atmosfera-presio handia dagoen lekuetan; barneko zirkuitu elektronikoak kaltetu edo gehiegi berotu daiteke.

## Saiatu taupada-markagailuekin interferentziarik ez sortzen

Utzi gutxienez 15 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia telefono mugikorren eta taupada markagailuen artean, interferentziarik egon ez dadin, fabrikatzaileen eta Wireless Technology Research ikerketa-talde independentearen gomendioei jarraituz. Telefonoak taupada-markagailu batean edo beste gailu medikoren batean interferentziak sortzen dituen zalantza baduzu, itzali telefonoa berehala eta jarri harremanetan taupada-markagailuaren edo gailu medikoaren fabrikatzailearekin laguntza eskatzeko.

## Itzali telefonoa lehergaiak egon daitezkeen inguruetan

Ez erabili telefonoa gasolindegietan (zerbitzugunea), ez eta erregai edo produktu kimikoetatik gertu ere. Itzali telefonoa ohar-jarraibideek edo –seinaleek hala adierazten dutenean. Telefonoak leherketak edo suteak eragin ditzake erregaiak eta produktu kimikoak gordetzeko eremuetan eta leherketa-eremuetan edo haien inguruan. Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitekeen materialik,

telefonoa eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

## Murriztu itzazu behin eta berriro mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak

Gailua erabiltzean, eutsi eskua erlaxatuta duzula, kontuz sakatu teklak, erabili tekla gutxiago sakatzeko teklak (adibidez, txantiloiak eta testu prediktiboa) eta maiz hartu atseden.

## Ez erabili telefonoa pantaila pitzatuta edo hautsita badago

Beira hautsiak lesioak sor ditzake eskuetan eta aurpegian. Eraman telefonoa Samsung zerbitzu-zentro batera, pantaila ordezteko. Behar bezala ez erabiltzeagatik sortutako kalteak direla eta fabrikatzailearen bermea bertan behera gelditu daiteke.

KONTUZ

# Segurtasun-neurriak

## Arretaz gidatu beti

Ez erabili telefonoa gidatzen ari zarela, eta bete gidatzean mugikorra erabiltzea debekatzen duten arau guztiak. Ahal duzun guztietan, erabili esku libreko osagarriak segurtasun handiagoa izateko.

## Bete segurtasuneko arau eta ohar guztiak

Bete zenbait eremutan mugikorrak erabiltzea debekatzen duten arau guztiak.

## Erabili beti Samsung-ek baimendutako osagarriak

Bateragarriak ez diren osagarriak erabiliz gero, zure telefonoa kaltetu daiteke, edo zeu zauritu zaitezke.

## Itzali telefonoa ekipo medikoetatik gertu zaudenean

Telefonoak interferentziak sor ditzake ospitaleetako osasuna zaintzeko zentroetako tresna medikoetan. Bete araudiak, argitaratutako ohartarazpenak eta pertsonal medikoak emandako jarraibideak.

## Itzali telefonoa edo desaktibatu haririk gabeko funtzioak hegazkinean zoazela

Telefonoak interferentziak sor ditzake hegazkinaren tresnerian. Bete hegazkin-konpainiaren arau guztiak eta itzali zure telefonoa edo jarri haririk gabeko funtzioak desaktibatutako moduan, hegazkin-konpainiako langileek hala adierazten badute.

## Saiatu bateriek eta kargagailuek kalterik izan ez dezaten

- Ez jarri bateriak tenperatura hotzegiak edo beroegiak dauden lekuetan (0 °C/32 °F-tik beherakoak edo 45 °C/115 °F-tik gorakoak). Muturreko tenperaturen kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria murriztu dezakete.
- Saiatu bateriak ez daitezen egon metalezko objektuekin kontaktuan; baterien + eta – terminalen konexioa sortu, eta betirako edo aldi baterako kaltea eragin daiteke.
- Ez erabili hondatutako kargagailu edo bateria bat.

## Kontuz eta arretaz erabili telefonoa

- Ez desmuntatu telefonoa; elektrokuzio-arriskua dago.
- Ez ukitu telefonoa eskuak bustita dituzula. Urak eragindako kalteak direla eta fabrikatzailearen bermea bertan behera gelditu daiteke.

KONTUZ

- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsa dagoen lekuetan, pieza mugikorrak hondatu ez daitezen.
- Gailu elektroniko konplexua da telefonoa; beraz, babestu ezazu kolpeetatik eta manipulazio zakarretatik, kalte larririk ez eragiteko.
- Ez margotu telefonoa; pinturak zati mugikorrak blokeatzen baditu ez dute behar bezala funtzionatuko.
- Gailuak argia edo kamera-flasha baldin badu, saiatu ez erabiltzen haurren edo animalien begietatik hurbil.
- Gailua kaltetu egin daiteke eremu magnetikoetan jarriz gero. Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatilak edo osagarriak, eta ez utzi telefonoa eremu magnetikoekin kontaktuan denbora luzez.

## Saihestu beste gailu elektronikoekin interferentziak izatea

Telefonoak irrati-maiztasuneko seinaleak igortzen dute, eta horiek interferentziak eragin ditzakete babestu gabeko edo gaizki babestutako gailuetan, esaterako, taupada-markagailuetan, audifonoetan, etxeetako gailu medikoetan edo etxeetako edo ibilgailuetako beste edozein gailu elektronikotan. Galdetu zure gailu elektronikoen fabrikatzaileari interferentzia-arazoak konpontzeko.

KONTUZ

# Erabilerari buruzko informazio garrantzitsua

## Ez erabili telefonoa ohiko posizioan ez bada

Saiatu telefonoaren barneko antenarekin kontakturik ez izaten.

## Ez utzi kualifikatu gabeko langileei telefonoaren mantentze-lanak egiten

Kualifikatu gabeko langileei uzten badiezu telefonoaren mantentze-lanak egiten, telefonoa hondatu dezakete eta horrek bermea baliogabetuko du.

## Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten

- Ez kargatu bateriak astebetez baino gehiagoz; gainkargak iraupena murriztu dezake.
- Denborak aurrera egin ahala, erabili gabeko bateriak deskargatu egingo dira, eta berriro kargatu behar dira erabili aurretik.
- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Aurreikusitako helbururako soilik erabili bateriak.

## Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak

- Ez kendu txartelik telefonoa informazioa transferitzen edo erabiltzen ari dela; telefonoko edo txarteleko datuak galdu edo kaltetu daitezke.
- Babestu txartelak kolpe bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste gailu batzuek eragindako zarata elektrikotik.
- Sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelen bizitza erabilgarria murriztu egingo da.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak behatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.

## Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea

Baliteke zenbait leku edo egoeratan telefonotik larrialdi-deirik egin ezin izatea. Urruneko herrialdeetara edo

garabidean daudenetara joan aurretik, planifikatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko metodo bat.

## Absortzio espezifikoaren tasaren ziurtagiriari buruzko informazioa (SAR, Specific Absorption Rate)

Irratien eta telekomunikazio-tresnen irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa mugatzen duten Europako Batasuneko (EB) arauak betetzen ditu telefonoak. Arau horiek gehienezko esposizio-maila (absortzio espezifikoaren tasa edo SAR deitua), hau da, kg bakoitzeko 2,0 watt gainditzen duten gailu mugikorren salmenta debekatzen dute.

Proba-prozesuan, telefono-modelo honetarako gehienezko SAR balioa 0,659 watt/kg izan zen. Ohiko erabileran, gehienezko balioa baino dezente beherago egon ohi da SAR erreala; izan ere, hurbilen dagoen estaziora seinaleak igortzeko beharrezkoa den irrati-maiztasuneko energia soilik igortzeko diseinatua da telefonoa. Ahal izanez gero automatikoki maila txikiagoak igortzen dituenez, telefonoak murriztu egiten du erabiltzaileak jasotzen duen irrati-maiztasuneko energia.

Erabiltzailearen eskuliburu honen atzealdeko adostasun-deklarazioak frogatzen du telefonoak betetzen duela telekomunikazioko ekipo terminalei buruzko Europako direktiba (R&TTE). SARi eta horren inguruko EBko arauei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus Samsung-en telefonia mugikorraren web gunea.

## Produktu hau behar bezala botatzea

(Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak)



(Europako Batasunean eta hondakinen gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)

Produktuan, osagarrietan edo harekin batera doan material informatiboan ikur hori agertzen bada, horrek esan nahi du produktuaren edo haren osagarri elektronikoen (kargagailua, entzungailuak, USB kablea) bizitza baliagarria amaitzean ez direla bota behar etxeko gainerako hondakinekin. Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari edo osasunari sor

dakizkiokeen kalteak saihesteko, bereizi produktu horiek gainerako hondakinetatik, eta birziklatu behar bezala. Horrela, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria bultzatzen da. Erabiltzaile partikularrak produktua erosi zuten saltokiarekin edo tokiko agintariekin harremanetan jar daitezke, modu ekologiko eta seguruan birziklatzeko nora eraman dezaketen jakiteko. Enpresa-erabiltzaileak hornitzailearekin harremanetan jar daitezke, erosketa-kontratuaren baldintzen berri jakiteko. Produktu hau eta berekin dakartzan osagarri elektronikoak ez dira bota behar enpresako gainerako hondakinekin.

## Produktu honen bateriak behar bezala botatzea



*(Europako Batasunean eta baterien gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)*

Produktuaren baterietan, eskuliburuan edo paketean marka hau badago, horrek esan nahi du baterien bizitza erabilgarria amaitzean ez direla bota behar etxeko beste hondakinekin batera.

Markatuta badaude, Hg, Cd edo Pb ikur kimikoek esan nahi dute bateriak merkurioa, kadmioa edo beruna dituela EBren 2006/66 Direktiban erreferentziatzat jarritako balioen gainetik. Bateriak behar bezala botatzen ez badira, substantzia horiek norbaiten osasuna edo ingurumena kaltetu dezakete.

Baliabide naturalak babesteko eta birziklatzea bultzatzeko, bereizi bateriak gainerako hondakinetatik, eta birziklatu zure herriko doako bilketa-sistemaren bidez.

## Erantzukizunik ezaren klausula

Gailu honen bidez hainbat eduki eta zerbitzutara sar zaitezke. Horietako batzuk hirugarrenenak dira, eta egile-eskubideek, patenteek, marka erregistratuek eta/edo jabetza intelektualeko beste lege batzuek babesten dituzte. Eduki hori eta zerbitzu horiek erabilera pertsonalerako soilik ematen dira, ez merkataritza-erabilerarako. Baliteke edukia edo zerbitzuak ezin erabili izatea edukiaren jabeak edo zerbitzu-hornitzaileak baimendu ez duen moduan.

Arestian aipatutakoa alde batera utzi gabe, eta edukiaren jabeak edo zerbitzu-hornitzaileak espresuki emandako baimenik ez badago, debekatuta dago gailu honen bidez erakusten diren zerbitzuak aldatzea, kopiatzea, berriro editatzea, kargatzea, argitaratzea, transmititzea, itzultzea, saltzea, horretan oinarritutako lanak sortzeko erabiltzea, ustiatzea edo edozein modutan banatzea.

"HIRUGARRENEN EDUKIAK ETA ZERBITZUAK DAUDEN-DAUDENEAN EMATEN DITU SAMSUNG-EK". SAMSUNG-EK EZ DU BERMATZEN EZEIN XEDETARAKO ESPRESUKI EDO INPLIZITUKI EMANDAKO EDUKIRIK EZ ZERBITZURIK. SAMSUNGEK UKO EGITEN DIE ESPRESUKI EDO INPLIZITUKI EMANDAKO BERMEEI; BESTEAK BESTE, MERKATURATZEKO BERMEEI EDO HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARENEI. SAMSUNG-EK EZ DU BERMATZEN GAILU HONEN BIDEZ ERABIL DAITEKEEN INONGO EDUKI EDO ZERBITZUREN EGIAZKOTASUNIK, BALIOZKOTASUNIK, ERREPRODUKZIORIK, LEGEZKOTASUNIK EDO OSOTASUNIK; HORREZ GAIN, SAMSUNG EZ DA EZEIN KASUTAN, ZABARKERIA BARNE, EZ KONTRATUZ EZ BESTELA, EDOZEIN KALTE ZUZENEKO, ZEHARKAKO, ISTRIPUZKO, BEREZI EDO ZERBAITEN ONDORIOZKOREN ERANTZULE IZANGO, EZ ETA ABOKATUEN ORDAINSARIEN, GASTUEN EDO BESTE EDOZEIN KALTERENA ERE, BALDIN ETA ZUK EDO HIRUGARREN BATEK EGINDAKO EDOZEIN ERABILERAREN ONDORIO BADA, KALTE HORIEK SOR DAITEZKEELA JAKINIK ERE.

Hirugarrenen zerbitzuak edozein unetan amaitu edo eten daitezke, eta Samsing-ek ez du bermerik ematen edukia edo zerbitzua denbora-tarte batean eskuragarri izateko. Edukia eta zerbitzuak hirugarrenek transmititzen dituzte, transmisio-sare eta –instalazioen bidez, eta Samsung-ek ez du horien kontrolik. Klausula honek oro har dioena alde batera utzi gabe, Samsung-ek espresuki uko egiten dio gailu honen bidez emandako edukia edo zerbitzua mozteagatiko edo eteteagatiko edozein ardurari.

Edukiei eta zerbitzuei lotutako bezero-arreta ez da Samsung-en ardura. Edukiari edo zerbitzuei buruzko galderak zerbitzu- eta eduki-hornitzaileei bidali behar zaizkie.

Albumetatik Samsung-en musika-erreproduzitzailera material grafikoa deskargatuz gero, material hori manipulatu, aldatu edo bestelakotu egingo da.

Albumetako material grafikoa baimenik gabe deskargatuz gero, baliteke albumetako material grafikoaren eta/edo artistaren eskubide moralen copyright-a ez betetzea.

Samsung-ek ez du onartzen, eta uko egiten dio erabiltzaileak albumetako material grafikoa Samsung-en musika-erreproduzitzailera deskargatzeagatik copyright-a edo eskubide moralak ez betetzeagatiko erantzukizunari.

Erabiltzaileek egiaztatu behar dute musika-hornitzailearen baimena dutela, lizentzia honen arabera, albumetako material grafikoa deskargatzeko eta aldatzeko.

# Telefono mugikorraren sarrera

Atal honetan, zure telefono mugikorraren diseinua, teklak, pantaila eta ikonoak ezagutuko dituzu.



## Bilgarria kentzea

Egiaztatu produktuaren kaxak elementu hauek dituela:

- Telefono mugikorra
- Bateria
- Bidaiarako egokigailua (kargagailua)
- Erabiltzailearen eskuliburua

- Baliteke telefonoak dakartzan elementuak aldatzea zure lurraldean eskuragarri dauden softwarearen eta osagarrien arabera edo zerbitzu-hornitzailearen eskaintzaren arabera. Hainbat osagarri eskura ditzakezu Samsung-en tokiko hornitzailearen bidez.
- Telefonoarekin batera datozen osagarriak dira erabiltzeko egokienak.

# Telefonoaren diseinua

Telefonoaren aurrealdean tekla eta funtzio hauek daude:




Zure telefonoaren barruan tekla eta funtzio hauek daude:



Telefonoaren atzealdean tekla eta funtzio hauek daude:




Telefonoa ixtean, kanpoan gelditzen diren teklak automatikoki blokeatzen dira, nahi gabe aktibatu ez daitezen. Teklatua blokeatzeko edo desblokeatzeko, luze sakatu *(*)*.

## Teklatua

| Tekla | | Funtzioa |
|---|---|---|
| [−] [−] | Funtzioa | Pantailaren beheko aldean adierazitako ekintzak egiten dituzte. |
| [○] | 4 norabideko nabigazioa | Modu inaktiboan, erabiltzaileak definitutako menuetara sartzeko edo lasterbide batetik bestera joateko aukera ematen du *(aurrez definitutako menu bat edo beste eduki daiteke zerbitzu-hornitzailearen arabera)*; menuen moduan, menuaren aukera batetik bestera joateko balio du. |

| Tekla | | Funtzioa |
|---|---|---|
| | Berretsi | Modu inaktiboan, web. nabigatzailea hasteko edo menuen modura sartzeko balio du *(lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke tekla horrek beste funtzio batzuk izatea)*, modu inaktiboan, lasterbideen tresna-barratik menu bat hautatzeko aukera ematen du; menuen moduan, nabarmendutako menu-aukera hautatzeko edo sarrera bat berresteko balio du. |
| | Markatzeko tekla | Dei bat egiteko edo erantzuteko balio du; modu inaktiboan, azkena markatutako, galdutako edo jasotako zenbakiak berreskuratzeko balio du. |

| Tekla | | Funtzioa |
|---|---|---|
| | Pizteko/ menuetatik irteteko tekla | Telefonoa pizteko eta itzaltzeko balio du *(luze sakatuta)* edo dei bat amaitzeko; menuen moduan, sarrera bat ezeztatzeko edo modu inaktibora itzultzeko balio du. |
| | Tekla alfanumerikoa | Zenbakiak, letrak eta karaktere bereziak sartzeko balio du; modu inaktiboan, luze sakatu *[1]*, ahots-postako mezuetara sartzeko , eta *[0]*, nazioarteko dei-aurrezenbaki bat sartzeko. |

| Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| Funtzio bereziak | Karaktere bereziak sartzeko edo funtzio bereziak egiteko balio du; modu inaktiboan, luze sakatu [#] profil isila ezartzeko; modu inaktiboan, luze sakatu [*] zenbakien artean eten bat sartzeko; modu inaktiboan, luze sakatu [*] teklak blokeatzeko edo desblokeatzeko. |
| Bolumen-tekla | Telefonoaren bolumena doitzeko balio du; sarrerako deien txirrina isilarazteko edo deiak errefusatzeko balio du *(luze sakatuta)*. |
| Kamera | Modu inaktiboan, kamera pizteko balio du *(luze sakatuta)*; kamera-moduan, argazki bat ateratzeko edo bideo bat grabatzeko aukera ematen du. |
| Funtzioa | Pantailaren beheko aldean adierazitako ekintzak egiten dituzte. |
| Mezularitza/ maiuskulak | Modu inaktiboan, mezu berria idazteko pantaila irekitzeko balio du; sarrerako postontzira sartzeko ere balio du *(luze sakatua)*, bai eta maiuskuletara edo minuskuletara aldatzeko ere, testua idazteko eremu batean. |
| Alt. | Teklen goialdeko karaktereak testua sartzeko eremu batean erabiltzeko balio du. |
| Tekla alfanumerikoa | Zenbakiak, karaktereak eta ikurrak sartzeko balio dute. |

| Tekla | | Funtzioa |
|---|---|---|
| space | Zuriunea | Testua idazteko eremu batean zuriune bat sartzeko balio du |
| L B M N | 4 norabideko nabigazioa | Modu inaktiboan, erabiltzaileak definitutako menuetara sartzeko aukera ematen du (aurrez definitutako menu bat edo beste eduki daiteke zerbitzu-hornitzailearen arabera); menuen moduan, menuaren aukera batetik bestera joateko balio du. |
| | Ezabatzea | Karaktereak ezabatzeko balio du |
| | Intro | Testua idazteko eremu batean lerro berri batean hasteko balio du |
| OK | Berretsi | Modu inaktiboan, menuen modura sartzeko aukera ematen du; menuen moduan, nabarmendutako menua aukeratzeko edo sarrera bat berresteko aukera ematen du |

## Pantaila

Telefonoaren pantailak hiru eremu ditu:




**Ikono-lerroa**

Hainbat ikono bistaratzen ditu

**Testuen eta grafikoen gunea**

Sartutako mezuak, jarraibideak eta informazioa bistaratzen ditu

**Funtzio-teklen lerroa**

Funtzio-tekla bakoitzak unean esleituta dituen ekintzak bistaratzen ditu.

# Ikonoak

Ikas ezazu pantailan agertzen diren ikonoak zer diren

| Ikonoa | Definizioa |
|---|---|
| | Seinalearen intentsitatea |
| | GPRS sarea konektatuta |
| | GPRS saretik datuak transferitzen |
| | EDGE sarea konektatuta |
| | EDGE saretik datuak transferitzen |
| | Deia martxan |
| | Larrialdi-mezuaren funtzioa aktibatuta |
| | Web gune seguru batera konektatzen |
| | Web-ean nabigatzea |
| | Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta |
| | Desplazamendu-egoera (ohiko zerbitzu-eremutik kanpo) |
| | Bluetootha aktibatuta |
| | Musika-erreprodukzioa martxan |
| | Musika-erreprodukzioa etenaldian |
| | Musika-erreprodukzioa geldituta |
| | FM irratia piztuta |
| | FM irratia etenda |
| | Memoria-txartela jarrita |
| | Testu- edo multimedia-mezu berria |
| | Mezu elektroniko berria |
| | Ahots-postako mezu berria |
| | Alarma aktibatuta |
| | Profil normala aktibatuta |
| | Silencio profila aktibatuta |
| | Bateriaren karga-maila |
| 10:00 | Uneko ordua |

# Telefono mugikorra instalatzea eta prestatzea

Hasteko, instalatu eta konfiguratu zure telefono mugikorra, eta erabili lehen aldiz.

## SIM txartela eta bateria sartzea

Telefonia mugikorreko zerbitzu batean izena ematean, zure harpidetzari buruzko informazioa duen SIM txartela (abonatuaren identifikazio-modulua), zure identifikazio-zenbaki pertsonala (PIN) eta hautazko zerbitzuak jasotzen dituzu.

SIM txartela eta bateria sartzeko:

1. Kendu bateriaren tapa.




Telefonoa piztuta badago, itzali [⏻] tekla luze sakatuta.

2. Sartu SIM txartela.



- Jarri txartela telefonoan, urre koloreko kontaktuak behera begira direla.
- SIM txartela sartu gabe, sarerik gabeko zerbitzuak eta zure telefonoko menu batzuk erabil ditzakezu.

3. Sartu bateria.




4. Jarri berriro bateriaren estalkia.



## Bateria kargatzea

Telefonoa lehen aldiz erabili aurretik, bateria kargatu behar duzu.

1. Ireki funtzio ugariko hartunearen estalkia, eta konektatu bidaiarako egokigailuaren ertz txikia.



Triangelua gora begira duela

KONTUZ Bidaiarako egokigailua ondo konektatzen ez baduzu, telefonoak kalte larriak jasan ditzake. Bermean ez ditu barne hartzen okerreko erabileragatik sortutako kalteak.

2. Konektatu bidaiarako egokigailuaren mutur handia korronte-hartune batera.
3. Bateria osorik kargatuta dagoenean (▮▮▮▮ ikonoa mugitzen ez denean), deskonektatu bidaiarako egokigailua elikadura-iturritik.
4. Deskonektatu telefonoaren bidaiarako egokigailua.
5. Itxi funtzio ugariko hartunearen estalkia.

**Bateria baxuaren adierazleari buruz**

Bateriaren karga baxu dagoenean, telefonoak ohar-tonu bat egiten du, eta bateria baxu dagoela adierazteko mezu bat bistaratzen da. Gainera, bateriaren ikonoa hutsik eta keinuka agertuko da. Bateria-maila telefonoak funtzionatzeko baxuegia bada, itzali egingo da automatikoki. Kargatu bateria telefonoa erabiltzen jarraitzeko.

## Memoria-txartela sartzea (hautazkoa)

Multimedia-fitxategi gehiago biltegiratzeko, memoria-txartela sartu behar duzu. 4 GB arteko microSD® edo microSDHC® memoria-txartelak onartzen ditu telefonoak (fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera).

1. Kendu bateriaren tapa.
2. Desblokeatu memoria-txartelaren estalkia.

+



3. Jaso memoria-txartelaren estalkia, eta sartu memoria-txartel bat, etiketa gora begira duela.




4. Itxi memoria-txartelaren estalkia.



5. Blokeatu memoria-txartelaren estalkia.



6. Jarri berriro bateriaren estalkia.

Memoria-txartela ateratzeko, kendu bateriaren estalkia, askatu eta jaso memoria-txartelaren estalkia, eta atera.



# Oinarrizko funtzioen erabilera

Ikas ezazu zure telefonoaren oinarrizko eragiketak egiten eta funtzio nagusiak erabiltzen.

## Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko

1. Luze sakatu [ ].
2. Idatzi zure PIN zenbakia eta sakatu **<Onartu>** (beharrezkoa bada).
3. Konfigurazio-laguntzailea irekitzean, pertsonalizatu telefonoa zure nahien arabera, pantailan agertzen diren jarraibideei kasu eginez.

Telefonoa itzaltzeko, egin 1. urratseko gauza bera.

## Lineatik kanpoko profilera aldatzea

Lineatik kanpoko profilera aldatzean, telefonoaren sarerik gabeko zerbitzuak erabili ahal izango dituzu haririk gabeko gailuak debekatuta dauden lekuetan, esate baterako, hegazkinetan eta ospitaleetan. Lineaz kanpoko profilera aldatzeko, menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren profilak** → **Lineaz kanpo**.

Bete langile ofizialek egindako ohar eta argibide guztiak haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan zaudenean.

## Menuetara sartzea

Telefonoaren menuetara sartzeko:

1. Modu inaktiboan, sakatu **<Menua>** menuan sartzeko.

   Baliteke berrespen-tekla sakatu behar izatea menuen modura sartzeko, zure lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

2. Erabili nabigazio-tekla menu edo aukera batera joateko.
3. Sakatu <**Auke.**>, <**Gorde**> edo berrespen-tekla nabarmendutako aukera berresteko.
4. Sakatu <**Atzera**> maila bat gorago joateko, eta sakatu [ ] modura itzultzeko.

## Lasterbideen tresna-barrako testuinguru-menuen erabilera

Ikas ezazu tresna-barrako elementuak erabiltzen.

Lasterbideen tresna-barratik elementu batera sartzeko, modu inaktiboan, joan ezkerrera edo eskuinera, nahi duzun menuko elementura, eta sakatu berrespen-tekla.

Lasterbideen tresna-barrako elementuak editatzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila eta argiztapena** → **Aukeratu**.
2. Sakatu **<Aukerak>** → **Editatu**.
3. Hautatu nahi dituzun menuak.
4. Sakatu **<Aukerak>** → **Ireki**, azpimenuak hautatzeko (beharrezkoa bada).

5. Sakatu **<Gorde>**, edo sakatu **<Aukerak>** → **Gorde**.

Lasterbideen tresna-barra desaktibatzeko, menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila eta argiztapena** → **Hasierako pantaila** → **Aukeratu** → **Desaktibatuta**.

## Mezularitzako lasterbideak erabiltzea lasterbideen moduan

Ikas ezazu telefonoa irekitzean mezularitzako lasterbideak erabiltzen, lasterbide-moduan.

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren konfigurazioa** → **Sarrera zuzenak** → **Aktibatuta** (beharrezkoa bada).
2. Sakatu [ ] modu inaktibora itzultzeko.
3. Lerratu telefonoa irekitzeko.
4. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
5. Joan ezkerrera edo eskuinera, hurrengo menuak erabiltzeko.

| Menua | Deskribapena |
|---|---|
| Sortu mezua | Testu- edo multimedia-mezu bat sortzeko balio du. |
| Sare sozialak | Ikus itzazu argazkiak eta bideoak sarean, hainbat webguneren bidez. |
| Elkarrizketak | Bidalitako eta jasotako mezuak ikusteko balio du |
| Fring messengerra | Zure lagunekin hitz egiteko balio du. |

## Telefonoa pertsonalizatzea

Pertsonalizatu telefonoa zure lehenespenen arabera, ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

## Teklen tonuen bolumena doitzea

Modu inaktiboan, sakatu [▲/▼] teklen tonuaren bolumena doitzeko.

## Profil isila jartzea edo kentzea

Modu inaktiboan, luze sakatu [#] telefonoaren soinua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

## Telefonoaren profil bat ezartzea

Uneko profilaren txirrina aldatzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren profilak**.
2. Joan erabiltzen ari zaren profilera.

> Profil isila edo lineaz kanpokoa erabiltzen ari bazara, ezin duzu aldatu dei-tonua.

3. Sakatu **<Aukerak>** → **Editatu** → **Dei abisu mota**.
4. Hautatu txirrin-maila bat → txirrin bat.
5. Sakatu <**Gorde**>.

Beste profil batera aldatzeko, hautatu bat zerrendatik.

Telefonoaren profil bat sortzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren profilak**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Sortu**.
3. Sartu izen bat profilarentzat, eta hautatu **<Gorde>**.
4. Pertsonalizatu soinu-doikuntzak nahi bezala.
5. Amaitutakoan, sakatu **<Gorde>**.

## Pantailaren atzealdea hautatzea (modu inaktiboa)

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila eta argiztapena** → **Hasierako pantaila**.
2. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Irudiak**-era.
3. Hautatu **Pantaila atzealdea**.
4. Hautatu irudi-kategoria bat → irudi bat.
5. Sakatu <**Auke.**> → **<Gorde>**.

## Pantailarako gai bat hautatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila eta argiztapena** → **Nire gaia**.
2. Joan gailu batera eta hautatu **<Gorde>**.

## Menuko lasterbideak ezartzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Telefonoaren konfigurazioa** → **Sarrera zuzenak**.
2. Hautatu zuzeneko sarbideko tekla gisa erabiliko duzun tekla.
3. Hautatu lasterbideari esleituko diozun menua.

Lasterbideen tresna-barra aktibatuta dagoenean, nabigazio-teklek (ezkerra/eskuina) ez dute funtzionatzen lasterbide gisa.

## Telefonoa blokeatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Segurtasuna** → **Telefono blokeoa** → **Aktibatuta**.
2. Idatzi pasahitz berria, 4 eta 8 digitu artekoa, eta sakatu <**Onartu**>.
3. Sartu berriro pasahitz berria eta sakatu **<Onartu>**.

- Pasahitza eskatzen duen menu batera sartzen zaren lehen aldian, pasahitz bat sortzeko eta berresteko eskatuko dizu.
- Samsung-ek ez du ardurarik pasahitzak eta informazio pribatua galtzeagatik edo legez kanpoko softwareak sortutako beste kalteengatik.

# Deien oinarrizko funtzioak erabiltzea

Ikas ezazu deiak egiten edo erantzuten, eta deien oinarrizko funtzioak erabiltzen.

## Deitzea

1. Modu inaktiboan, idatzi area-kodea eta telefono-zenbakia.
2. Sakatu [ ] tekla zenbakia markatzeko.
3. Dei bat amaitzeko, sakatu [ ].

## Dei bati erantzutea

1. Dei bat jasotzean, sakatu [ ].
2. Dei bat amaitzeko, sakatu [ ].

## Bolumena doitzeko

Hitz egiten ari zarenean bolumena doitzeko, sakatu [▲/▼].

## Bozgorailu-funtzioa erabiltzea

1. Dei bat egitean, sakatu berrespen-tekla → <**Bai**>, bozgorailua aktibatzeko.
2. Bozgorailua berriro erabiltzeko, sakatu berriro berrespen-tekla.

Ingurune zaratatsuetan, baliteke zaila izatea deiak entzutea bozgorailu-funtzioa erabilita. Erabili telefonoaren ohiko modua funtzionamendua hobea izan dadin.

## Grabatu elkarrizketa bat:

Lurraldearen eta zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke funtzio hori eskuragarri ez egotea.

1. Hitz egiten ari zarela, sakatu **<Aukerak>** → **Menua** → **Aplikazioak** → **Ahots grabagailua**.
2. Grabatzen hasteko, sakatu berrespen-tekla.
3. Grabazioa eteteko, sakatu nabigazio-tekla.

## Entzungailuak erabiltzea

Entzungailuak funtzio ugariko hartunera konektatuz gero, deiak egin eta erantzun ditzakezu:

- Azken zenbakia berriro markatzeko, sakatu entzungailuen botoia bi aldiz.
- Dei bat erantzuteko, sakatu entzungailuen botoia.
- Dei bat amaitzeko, sakatu entzungailuen botoia.

# Mezuak jasotzea eta bistaratzea

Ikas ezazu testu-mezuak (SMS), multimedia-mezuak (MMS) edo posta elektronikoa bidaltzen eta ikusten.

## Testu-mezua edo multimedia-mezua bidaltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Mezua sortu** → **Mezua**.
2. Sartu helburuko zenbaki bat edo helbide elektroniko bat, eta joan behera.
3. Sartu mezuaren testua. ▶ 30. or.

Testu-mezu bat bidaltzeko, joan 5. pausora. Multimedia eransteko, jarraitu 4. pausoan.

4. Sakatu <**Aukerak**> → **Multimedia gehitu**, eta gehitu elementu bat.
5. Mezua bidaltzeko, sakatu berrespen-tekla.

## Mezu elektroniko bat bidaltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Mezua sortu** → **Posta elektronikoa**.
2. Sartu helburuko helbide elektroniko bat, eta joan behera.
3. Sartu gaia, eta joan behera.
4. Idatzi mezu elektronikoa.
5. Sakatu **<Aukerak>** → **Erantsi multimedia-fitxategia**, eta erantsi fitxategi bat (beharrezkoa bada).
6. Mezua bidaltzeko, sakatu berrespen-tekla.

## Testua idaztea

Ireki telefonoa, eta idatzi testua, ordenagailu baten teklatuan egingo zenukeen bezalaxe. Telefonoa itxita badago, erabili teklatua.

### Teklatua erabiliz testua sartzea

Idazteko teklatua erabiltzen duzunean, testua sartzeko modua alda dezakezu:

- Luze sakatu [ **#** ], T9 modutik ABC modura aldatzeko, eta alderantziz. Testua idazteko aukeran dauden moduak aldatu egin daitezke herrialdearen arabera.

- Sakatu [#] letra larrietatik letra xeheetara igarotzeko edo zenbakizko modura pasatzeko.
- Sakatu [✱] ikurren modura joateko.
- Sakatu [✱] bi aldiz aurpegieren zerrenda irekitzeko.
- Luze sakatu [✱], eta hautatu testua idazteko modu bat, edo aldatu testua sartzeko hizkuntza.

### QWERTY teklatuaren bidez testua sartzea

Funtzio hauek erabil ditzakezu QWERTY teklatuaren bidez testua sartzen duzunean:

- Sakatu [⇧] letra larrietara edo xeheetara aldatzeko.
- Luze sakatu ***(sym)*** tekla, sinboloen modura aldatzeko.
- Sakatu ***[alt]*** teklen goialdeko karaktereak sartzeko.
- Sakatu ***[alt]*** → ***[zuriunea]*** aurpegieren zerrenda irekitzeko.

Idatzi testua modu hauetako batean:

| Modua | Funtzioa |
|---|---|
| ABC | Sakatu dagokion tekla alfanumerikoa nahi duzun karakterea pantailan agertu arte. |
| T9 *(teklatuan soilik)* | 1. Sakatu hitz oso bat idazteko tekla alfanumerikoak.<br>2. Nahi duzun hitza pantailan ondo idatzita bistaratzen denean, sakatu [0] tartea sartzeko. Hitz egokia agertzen ez bada, hautatu beste hitz bat zerrendatik. |
| Zenbakiak | Sakatu dagokion tekla alfanumerikoa zenbaki bat sartzeko. |
| Ikurra | Sakatu dagokion tekla alfanumerikoa ikur bat sartzeko. |

## Ikusi testu- edo multimedia-mezuak

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Sarrera postontzia**.
2. Hautatu testu-mezu edo multimedia-mezu bat.

## Mezu elektroniko bat ikustea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Posta elektronikoen sarrera.**
2. Hautatu kontu bat.
3. Sakatu <**Aukerak**> → **Deskargatu**.
4. Hautatu mezu elektroniko bat edo goiburuko bat.
5. Goiburuko bat hautatu baduzu, sakatu **<Aukerak>** → **Berreskuratu**, mezua bera ikusteko.

# Kontaktuak gehitzea eta bilatzea

Ikas itzazu **Kontaktuak** funtzioaren oinarrizko funtzioak.

## Kontaktu berri bat gehitzea

1. Modu inaktiboan, sartu telefono-zenbakia eta sakatu **<Aukerak>**.
2. Hautatu **Kontaktua gorde** → memoriako leku bat (Telefonoa edo SIMa) → **Berria**.
3. Hautatu zenbaki-mota bat (beharrezkoa bada).
4. Idatzi kontaktuaren informazioa.
5. Sakatu **<Gorde>**, edo sakatu **<Aukerak>** → **Gorde**.

## Kontaktuak bilatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Idatzi bilatu duzun izenaren lehen letrak.
3. Hautatu bilaketa-zerrendan nahi duzun kontaktuaren izena.

Kontaktu bat aurkitu ondoren, hau egin dezakezu:

- [ ] sakatu, nahi duzun kontaktuari deitzeko.
- Berrespen-tekla sakatu, kontaktuaren informazioa editatzeko.

## Kameraren oinarrizko funtzioak erabiltzea

Ikas itzazu argazkiak eta bideoak egiteko eta ikusteko oinarrizko funtzioak.

### Argazkiak egitea

1. Modu inaktiboan, luze sakatu [ ], kamera aktibatzeko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Fokatu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezko doikuntzak.
4. Argazki bat ateratzeko, sakatu berrespen-tekla edo [ ].

   Argazkia automatikoki gordetzen da.
5. Sakatu [ ] edo [ ] beste argazki bat ateratzeko (3. pausoa).

### Argazkiak ikustea

Menuen moduan, hautatu **Nire fitxategiak** → **Irudiak** → **Nire argazkiak** eta argazki-fitxategi bat.

### Bideoak grabatzea

1. Modu inaktiboan, luze sakatu [ ] kamera aktibatzeko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Sakatu [**1**], grabazio-modura aldatzeko.
4. Fokatu atera nahi duzuna kamerarekin, eta egin beharrezko doikuntzak.
5. Grabatzen hasteko, sakatu berrespen-tekla edo [ ].
6. Grabazioa gelditzeko, sakatu < ▢ >, berrespen-tekla edo [ ].

   Bideoa automatikoki gordetzen da.
7. Sakatu **<Atzera>** [ ], beste bideo bat grabatzeko (4. urratsa).

### Bideoak ikustea

Menuen moduan, hautatu **Nire fitxategiak** → **Bideoak** → **Nire bideo klipak** eta bideo-fitxategi bat.

# Musika erreproduzitzea

Ikas ezazu musika-erreproduzitzailearekin edo FM irratiarekin musika entzuten.

## FM irratia entzutea

1. Konektatu emandako entzungailuak telefonoaren funtzio anitzeko hartunean.
2. Menuen moduan, hautatu **FM irratia**.
3. FM irratia pizteko, sakatu berrespen-tekla.
4. Sakatu <**Bai**> sintonizazio automatikoa hasteko. Irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

> **FM irratia** pizten duzun lehen aldian, sintonizazio automatikoa hasteko eskatuko dizu.

5. Gordetako irrati-kate bat hautatzeko, luze sakatu nabigazio-tekla ezkerrerantz edo eskuinerantz.
6. FM irratia itzaltzeko, luze sakatu berrespen-tekla.

## Musika-fitxategiak entzutea

Hasteko, transferitu fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera:

- Deskargatu fitxategiak haririk gabeko saretik.▶35. or.
- Deskargatu fitxategiak PC batetik, Samsung PC Studio aukerako programa erabilita.▶46. or.
- Jaso fitxategiak Bluetooth bidez.▶50. or.
- Kopiatu fitxategiak zure memoria-txartelean.▶47. or.

Musika-fitxategiak telefonora edo memoria-txartelera transferitu ondoren:

1. Menuen moduan, hautatu **Musika** → **Musika erreproduzitzailea**.
2. Hautatu musika-kategoria bat → musika-fitxategi bat.

3. Erabili tekla hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

| Tekla | Funtzioa |
| --- | --- |
| Berrespen-tekla | Erreprodukzioa gelditzen edo berrabiarazten du. |
| ▲/▼ | Bolumena igotzen edo jaisten du |
| Nabigazio-tekla | • Ezkerrera: erreprodukzioa berriz hasteko, aurreko fitxategira joateko (2 segundoz sakatuta) eta fitxategi berean atzera egiteko (luze sakatuta).<br>• Eskuinera: hurrengo fitxategira joateko edo fitxategi berean aurrera egiteko balio du (luze sakatuta)<br>• Gora: erreprodukzio-zerrenda irekitzeko aukera ematen du.<br>• Behera: erreprodukzioa eteteko aukera ematen du. |

**Nire fitxategiak** → **Memoria-txartela** eta musika-fitxategi bat hautatzen baduzu, erreprodukzioa martxan dagoela ezin izango zara joan hurrengo fitxategira edo aurrekora.

## Sarean nabigatzea

Ikas ezazu webguneetan sartzen, eta horiek gogoenei gehitzen.

- Baliteke kargu gehigarriak kobratzea sarera sartzeagatik eta multimedia deskargatzeagatik.
- Zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke nabigatzailearen menuak beste izen bat edukitzea.

### Web guneetan nabigatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Internet** → **Hasiera orria**, zerbitzu-hornitzailearen hasierako orria hasteko.

2. Erabili tekla hauek web-ean nabigatzeko:

| Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| Nabigazio-tekla | Web gune batean gora edo behera joateko aukera ematen du |
| Berrespen-tekla | Elementu bat hautatzeko aukera ematen du |
| **<Atzera>** | Aurreko orrira itzultzen da. |
| **<Aukerak>** | Nabigatzailearen aukera-zerrenda batera joateko aukera ematen du |




## Webguneak gogokoetan gehitzea

1. Menuen moduan, hautatu **Internet** → **Gordetako orriak**.
2. Sakatu <**Gehitu**>.
3. Idatzi orri baten izenburua eta web helbidea (URL).
4. Sakatu <**Gorde**>.

# Funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu zure telefonoaren aukera eta funtzio aurreratuak erabiltzen

## Deien funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas itzazu zure telefonoaren dei-gaitasun gehigarriak.

### Galdutako deiak ikustea eta markatzea

Telefonoko pantailan agertzen dira galdutako deiak. Galdutako dei baten zenbakia markatzeko:

1. Sakatu <**Ikusi**>.
2. Joan markatu nahi duzun galdutako deira.
3. Markatzeko, sakatu [⌐¬].

### Orain dela gutxi markatutako zenbaki batera deitzea

1. Modu inaktiboan, sakatu [⌐¬] orain dela gutxi markatutako zenbakien zerrenda ikusteko.
2. Joan nahi duzun zenbakira, eta sakatu [⌐¬], markatzeko.

## Dei bat zain uztea edo berreskuratzea

Sakatu <**Egonean**> dei bat zain uzteko edo <**Berreskuratu**> berreskuratzeko.

## Bigarren deia egitea

Zure sareak funtzio hori onartzen badu, dei baten barruan beste zenbaki bat marka dezakezu:

1. Sakatu <**Egonean**> lehen deia zain jartzeko.
2. Hautatu markatu nahi duzun zenbakia eta sakatu [ ].
3. Sakatu <O**rdezkatu**>, dei batetik bestera igarotzeko.
4. Zain dagoen dei bat amaitzeko, sakatu <**Aukera**> → **Ezeztatzen**...
5. Uneko deia amaitzeko, sakatu [ ].

## Bigarren deiari erantzutea

Zure sareak funtzio hori onartzen badu, sarrerako bigarren dei bat erantzun dezakezu:

1. Sakatu [ ] bigarren deiari erantzuteko. Lehen deia zain geratuko da automatikoki.
2. Sakatu <**Ordezkatu**>, dei batetik bestera igarotzeko.

## Dei anizkoitz bat egitea (multikonferentzia)

1. Deitu dei anizkoitzari gehitu nahi diozun lehen parte-hartzaileari.
2. Lehen parte-hartzailearekin konektatuta zaudela, deitu bigarren parte-hartzaileari.

   Lehen parte-hartzailea zain jartzen da automatikoki.
3. Bigarren parte-hartzailearekin konektatuta zaudenean, sakatu <**Aukerak**> → **Elkartu**.
4. Eman berriro 2. eta 3. pausoak, solaskide gehiago eransteko (beharrezkoa bada).
5. Dei anizkoitza amaitzeko, sakatu [ ].

## Nazioarteko zenbaki batera deitzea

1. Modu inaktiboan, luze sakatu [0] + karakterea sartzeko.
2. Idatzi markatu nahi duzun zenbaki osoa (herrialdearen kodea, eskualdeko kodea eta telefono-zenbakia), eta, gero, sakatu [ ] markatzeko.

## Aurkibideko kontaktu bati deitzea

Kontaktuetako zenbakiei zuzenean dei diezaiekezu, gordeta dituzun kontaktuak erabilita. ▶32. or.

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Joan markatu nahi duzun zenbakira, eta sakatu [ ], markatzeko.

## Deia ez onartzea

Sarrerako dei bat ez onartzeko, sakatu [ ]. Deia egin duen pertsonak okupatuta dagoeneko tonua entzungo du.

Zenbaki batzuen deiak automatikoki ez onartzeko, erabili automatikoki ez onartzeko funtzioa.

Automatikoki ez onartzeko funtzioa aktibatzeko eta ez onartutakoen zerrenda konfiguratzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Aplikazioen konfigurazioa** → **Deitu** → **Dei guztiak** → **Automatikoki ukatu**.
2. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Aktibatuta**-ra.
3. Hautatu **Baztertuen zerrenda**.
4. Sakatu <**Aukerak**> → **Gehitu** → **Berria**.
5. Sartu onartu nahi ez den telefono-zenbaki bat, eta sakatu **<Gorde>**.
6. Zenbaki gehiago gehitzeko, errepikatu 4. eta 5. urratsak.
7. Hautatu zenbakien alboko egiaztapen-laukitxoak.
8. Sakatu <**Aukerak**> → **Gorde**.
9. Sakatu <**Gorde**>.

# Agendaren funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu kontaktu-txartelak sortzen, markaketa bizkorreko zenbakiak konfiguratzen eta kontaktu-taldeak sortzen.

## Kontaktu-txartel bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Sakatu **<Aukerak>** → **Nire izen txartela**.
3. Idatzi zure informazio pertsonala.
4. Sakatu **<Gorde>**, edo sakatu **<Aukerak>** → **Gorde**.

Mezu bati edo mezu elektroniko bati erantsita bidal dezakezu zure kontaktu-txartela, edo, bestela, Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabil dezakezu horretarako.

## Markaketa bizkorreko zenbakiak konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Ezarpenak** → **Markaketa bizkorra**.
3. Joan ezarri nahi duzun zenbakira, eta sakatu berrespen-tekla.
4. Hautatu kontaktu bat → zenbakiari esleitzeko zenbaki bat (beharrezkoa bada).

   Kontaktua markaketa bizkorreko zenbakiarekin gordeko da.

Orain, modu inaktiboan zaudela esleitutako markaketa bizkorreko zenbakia luze sakatuz gero, kontaktu horri deitu diezaiokezu.

## Kontaktu-talde bat sortzea

Kontaktu-taldeak sortutakoan, dei-tonuak eta argazkiak eslei ditzakezu dei bakoitzeko deiak identifikatzeko, eta, gainera, mezuak bidal diezazkiokezu talde oso bati. Hasteko, sortu talde bat:

1. Menuen moduan, hautatu **Kontaktuak**.
2. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Taldeak** atalera.
3. Sakatu <**Aukerak**> → **Taldea sortu**.
4. Sartu talde-izen bat.
5. Deia identifikatzeko irudi bat ezartzeko, joan behera, eta sakatu berrespen-tekla → irudi-kategoria bat → irudi bat.

6. Talde bati dei-tonua ezartzeko, joan behera, eta sakatu berrespen-tekla → dei-tonuaren kategoria bat → dei-tonu bat.
7. Sakatu <**Gorde**>.

# Mezularitzako funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu txantiloiak sortzen, mezu berriak sortzeko txantiloiak erabiltzen, eta mezularitza-zerbitzua erabiltzen.

## Testu-txantiloi bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Txantiloiak** → **Testu mezu txantiloiak**.
2. Sakatu **<Sortu>**, txantiloi-leiho berri bat irekitzeko.
3. Sartu testua, eta sakatu berrespen-tekla, txantiloia gordetzeko.

## Multimedia-txantiloi bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Txantiloiak** → **Multimedia mezu txantiloiak**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Sortu.**
3. Sortu multimedia-mezu bat, gaia jarrita eta nahi dituzun fitxategiak erantsita, txantiloi gisa erabiltzeko. ▶30. or.
4. Txantiloia gordetzeko, sakatu **<Aukerak>** → **Txantiloi bezala gorde**.

## Testu-txantiloiak txertatzea mezu berrietan

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Mezua sortu** → mezu-mota bat.
2. Hautatu testu-eremua, eta sakatu **<Aukerak>** → **Testua gehitu** → **Txantiloia** → txantiloi bat.

   QWERTY teklatua erabiltzen ari bazara, sakatu ***[alt]*** → [✉], testu-txantiloi bat txertatzeko.

## Mezu bat sortzea multimedia txantiloi batekin

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Txantiloiak** → **Multimedia mezu txantiloiak**.
2. Joan nahi duzun txantilora, eta sakatu **<Aukerak>** → **Bidali**.

   Multimedia-mezu berri gisa irekiko da txantiloia.

## Bluetooth mezularitza-zerbitzua erabiltzea

Ikas ezazu Bluetooth haririk gabeko funtzioarekin etxekoekin edo lagunekin hitz egiten.

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Bluetooth mezularitza**.
2. Sakatu <**Bai**> Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzeko (beharrezkoa bada).
3. Sakatu <**Aukerak**> → **Bluetooth kontaktua bilatu** → **Gailu berriak bilatu**.
4. Joan gailu batera, eta sakatu **<Aukeratu>**.
5. Sartu Bluetooth haririk gabeko funtzioaren PINa edo beste gailuaren Bluetooth-aren PINa (baldin badu), eta sakatu <**Onartu**>.

   Beste gailuaren jabeak PIN bera sartzen duenean, edo konexioa onartzen duenean, biak konektatuta egongo dira.

   Gailuaren arabera, baliteke PINa sartu beharrik ez izatea.

6. Idatzi mezua, eta sakatu berrespen-tekla.

## Fring mezularitza-zerbitzua erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Erkidegoak**.
2. Sartu zure erabiltzaile-IDa eta pasahitza, eta, gero, sakatu berrespen-tekla.
3. Hitz egin zure senide eta lagunekin.

## Karpeta bat sortzea mezuak administratzeko

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Nire karpetak**.
2. Sakatu <**Sí**>.
3. Sartu karpeta-izen berri bat, eta sakatu **<Onartu>**.
4. Mugitu sarrerako postontziko mezuak zure karpetetara, nahi bezala administratzeko.

# Kameraren funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu argazkiak hainbat modutan ateratzen eta kameraren konfigurazioa pertsonalizatzen.

## Hainbat argazki ateratzea

1. Modu inaktiboan, luze sakatu [📷] kamera aktibatzeko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Sakatu [☰] **Kliskatze modua** → **Anitza**.
4. Hautatu zenbat argazki atera nahi dituzun.
5. Egin beharrezko doikuntzak.
6. Argazki batzuk ateratzeko, sakatu berrespen-tekla edo [📷].
7. Hautatu gorde nahi dituzun argazkiak, eta sakatu [💾], gordetzeko.

## Argazki banatuak ateratzea

1. Modu inaktiboan, luze sakatu [📷] kamera aktibatzeko.
2. Sakatu [☰] **Kliskatze modua** → **Mosaikoa**.
3. Hautatu irudi bat, eta sakatu berrespen-tekla.
4. Egin beharrezko doikuntzak.
5. Sakatu berrespen-tekla edo [📷], atal bakoitzerako argazkiak ateratzeko.

## Argazki panoramikoak ateratzea

1. Modu inaktiboan, luze sakatu [📷], kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Sakatu < ☰ > **Kliskatze modua** → **Panorama**.
4. Egin beharrezko doikuntzak.
5. Lehen argazkia ateratzeko, sakatu berrespen-tekla edo [📷].
6. Mugitu telefonoa eskuinera, mantso-mantso. Telefonoak automatikoki aterako du hurrengo argazkia.
7. Errepikatu 6. pausoa argazki panoramikoa osatzeko.
8. Argazkia gordetzeko, sakatu [💾].

## Argazkiak ateratzea marko apaingarriekin

1. Modu inaktiboan, luze sakatu [📷], kamera pizteko.
2. Biratu telefonoa ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
3. Sakatu < ☰ > → **Markoak**.
4. Hautatu marko bat, eta sakatu berrespen-tekla.
5. Egin beharrezko doikuntzak.
6. Argazki bat markoarekin ateratzeko, sakatu berrespen-tekla edo [📷].

## Kameraren aukerak erabiltzea

Argazki bat atera aurretik, sakatu < ☰ >, aukera hauetara sartzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Kliska modua | Argazkiak ateratzeko moduak aldatzeko balio du. |
| Bereizmena | Bereizmena aldatzeko balio du. |
| Gaueko modua | Gaueko argazki moduan erabiliko den zehaztu dezake. |
| Tenporizadorea | Atzera kontatzeko denbora hautatzeko balio du. |
| Efektuak | Efektu bereziak emateko balio du |
| Markoak | Dekorazio-marko bat gehitzen du. |
| Zurien oreka | Kolore-balantzea doitzeko balio du. |
| Bisore-modua | Pantaila ikusteko modua aldatzeko balio du. |
| Laster teklak | Lasterbideen informazioa ikusteko balio du. |

Bideo bat grabatu aurretik, sakatu < ☰ >, aukera hauetara sartzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Tamaina | Bideoaren tamaina aldatzeko balio du. |
| Tenporizadorea | Atzera kontatzeko denbora hautatzeko balio du. |
| Efektuak | Efektu bereziak emateko balio du |
| Zurien balantzea | Kolore-balantzea doitzeko balio du. |
| Audio-grabazioa | Audioa aktibatzeko edo desaktibatzeko balio du. |
| Grabazio-modua | Grabazio-modua aldatzeko. |
| Bisore-modua | Pantaila ikusteko modua aldatzeko balio du. |
| Laster teklak | Lasterbideen informazioa ikusteko balio du. |

## Kameraren konfigurazioa pertsonalizatzeko

Bisorean, sakatu [⚙] → **Ezarpenak** → **Kamera** edo **Bideokamera**, konfigurazio hauetara sartzeko:

| Aukera | Funtzioa |
|---|---|
| Kalitatea | Irudi digitalen edo bideoklipen kalitate doitzeko balio du. |
| Obturadorearen soinua | Obturadorea sakatzean zer soinu egingo duen hautatzeko balio du. |
| Zoomaren soinua | Zoomaren soinua piztu edo itzaltzen du |
| Distira soinua | Distiraren soinua piztu edo itzaltzen du. |
| Biltegiratze lehenetsia | Irudiak edo bideoklip berriak memorian non gorde hautatzeko balio du. |

# Musikaren funtzio aurreratuak erabiltzea

Ikas ezazu musika-fitxategiak prestatzen, erreprodukzio-zerrendak sortzen eta irrati-kateak gordetzen.

## Musika-fitxategiak kopiatzea Samsung PC Studio programa erabilita

1. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartune PC batera.
2. Jarri martxan Samsung PC Studio, eta kopiatu zure PCko fitxategiak telefonora.

   Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsung PC Studio-ren laguntza.

## Musika-fitxategiak memoria-txartel batean kopiatzea

1. Sartu memoria-txartel bat.
2. PCrako hautazko datu-kable batekin, konektatu telefonoaren funtzio anitzeko hartunea PC batera. Konektatuta dagoenean, ordenagailuan leiho bat bistaratuko da.
3. Ireki karpeta bat, fitxategiak ikusteko.
4. Kopiatu fitxategiak ordenagailutik memoria-txartelera.

## Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Musika** → **Musika erreproduzitzailea** → **Erreprodukzio zerrendak**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Erreprodukzio zerrenda sortu.**
3. Jarri izenburu bat erreprodukzio-zerrenda berriari, eta sakatu **<Gorde>**.
4. Hautatu erreprodukzio-zerrenda berri bat.
5. Sakatu <**Aukerak**> → **Gehitu** → **Pistak**.
6. Hautatu nahi dituzun programak, eta gero, sakatu <**Gehitu**>.

## Musika-erreproduzitzailearen konfigurazioa pertsonalizatzea

Ikas ezazu musika-erreproduzitzailearen soinu-konfigurazioa eta erreprodukzioa doitzen.

1. Menuen moduan, hautatu **Musika** → **Musika erreproduzitzailea**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Erreproduzitzailearen ezarpenak**.
3. Doitu konfigurazioa musika-erreproduzitzailea pertsonalizatzeko.

| Aukera | Funtzioa |
| --- | --- |
| Atzealdean erreproduzitzen | Musika-erreproduzitzailea amaitzean, musika-erreprodukzioa atzealdean ezartzeko balio du. |
| Soinu-efektuak | Soinu-efektuak aldatzeko balio du. |
| Musika automatikoa itzalita | Konfiguratu tenporizadorea musika-erreproduzitzailea automatikoki itzaltzeko. |

4. Sakatu <**Gorde**>.

## Irrati-kateak automatikoki gordetzea

1. Konektatu emandako entzungailuak telefonoaren funtzio anitzeko hartunean.
2. Menuen moduan, hautatu **FM irratia**.
3. FM irratia aktibatzeko, sakatu berrespen-tekla.
4. Sakatu <**Aukerak**> → **Sintonizazio automatikoa**.
5. Sakatu <**Bai**> berresteko (beharrezkoa bada).

   Irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

## Musikari buruzko informazioa bilatzea

Ikas ezazu sareko musika-zerbitzu batera sartzen eta entzuten ari zaren abestiei buruzko informazioa lortzen.

1. Menuen moduan, hautatu **Musika** → **Bilatu musika**.
2. Hautatu **Bilatu musika** zerbitzarira konektatzeko.
3. Telefonoa behar bezala erregistratu ondoren, sakatu <**Grabatu**>, bilatu nahi duzun musikaren zati bat grabatzeko.

Baliteke zerbitzu-hornitzaile batzuek zerbitzu hori ez onartzea eta datu-basean ez egotea abesti guztiei buruzko informazioa.

# Aplikazioen erabilera

Ikas ezazu telefono mugikorraren tresnak eta aplikazio gehigarriak erabiltzen.

## Bluetooth haririk gabeko funtzioa erabiltzea

Ikas ezazu zure telefonoak zer gaitasun dituen haririk gabeko beste gailu batzuekin konektatzeko, datuak trukatzeko eta esku libreko funtzioak erabiltzeko.

### Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Bluetooth**.
2. Sakatu **<Aukerak>** → **Ezarpenak**.
3. Joan behera, **Aktibazioa** atalera.
4. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Aktibatuta**-ra.
5. Beste gailu batzuei zure telefonoa bilatzen uzteko, joan behera, **Nire telefonoaren ikusgaitasuna** atalera, eta ezkerrera edo eskuinera, **Aktibatuta** hautatzeko.

   **Pertsonalizatua** hautatu baduzu, joan behera, eta konfiguratu zenbat denboraz egongo den zure telefonoa ikusgai.
6. Sakatu <**Gorde**>.

## Bluetootherako gaitutako beste gailu batzuk bilatzea, eta haiekin lotzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Bluetooth** → **Gailu berriak bilatu**.
2. Joan gailu batera, eta sakatu **<Auke.>**.
3. Sartu Bluetooth haririk gabeko funtzioaren PINa edo beste gailuaren Bluetooth-aren PINa (baldin badu), eta sakatu <**Onartu**>.

   Beste gailuaren jabeak PIN bera sartzen duenean, edo konexioa onartzen duenean, biak konektatuta egongo dira.

Gailuaren arabera, baliteke PINa sartu beharrik ez izatea.

## Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak bidaltzea

1. Hautatu bidali nahi duzun fitxategia edo elementua zure telefonoaren aplikazioetatik.
2. Sakatu **<Aukerak>** → **Honen bidez bidali** edo **Izen txartela honen bidez bidali** → **Bluetooth** (kontaktuaren datuak bidali nahi dituzunean, zehaztu zer datu bidali nahi dituzun).

## Bluetooth haririk gabeko funtzioaren bidez datuak jasotzea

1. Sartu Bluetooth haririk gabeko funtziorako PINa, eta sakatu <**Onartu**> (beharrezkoa bada).
2. Sakatu <**Sí**> gailuaren datuak jaso nahi dituzula berresteko (beharrezkoa bada).

# Larrialdiko mezu bat aktibatzea eta bidaltzea

Larrialdi bat duzunean, laguntza eskatzeko mezu bat bidali ahal izango duzu.

1. Menuen moduan, hautatu **Mezuak** → **Ezarpenak** → **Larrialdi mezuak** → **Bidalketa aukerak**.
2. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Aktibatuta**-ra.

3. Joan behera, eta sakatu berrespen-tekla, hartzaileen zerrenda irekitzeko.
4. Hautatu <**Aukerak**> → **Kontaktuak**, kontaktuen zerrenda irekitzeko.
5. Joan kontaktu batera, eta sakatu berrespen-tekla.
6. Behar izanez gero, hautatu zenbaki bat.
7. Kontaktuak hautatzen amaitutakoan, sakatu <**Auke**.>, hartzaileen zerrendara itzultzeko.
8. Hartzaileak gordetzeko, sakatu berrespen-tekla.
9. Joan behera eta jarri zenbat aldiz errepikatu nahi duzun larrialdi-mezua.
10. Sakatu <**Gorde**> → <**Bai**>.

Larrialdi-mezu bat bidaltzeko, telefonoak itxita egon behar du, eta teklek blokeatuta. Sakatu bolumen-tekla lau aldiz.

Larrialdi-mezu bat bidali ondoren, telefonoaren funtzio guztiak eten egiten dira,[ ]sakatu arte.

## Mugikor-bilatzailea aktibatzea

Norbaitek telefonoan SIM txartel berri bat sartzen duenean, mugikor-bilatzailearen funtzioak kontaktu-zenbakia bidaltzen die bi hartzaileri, telefonoa kokatu eta berreskuratu ahal izateko. Mugikor-bilatzailea aktibatzeko:

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Segurtasuna** → **Arakatzaile mugikorra**.
2. Sartu pasahitza eta sakatu **<Onartu>**.

**Arakatzaile mugikorra** atalera sartzen zaren lehen aldian, pasahitz bat sortzeko eta berresteko eskatuko zaizu.

3. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Aktibatuta**-ra.
4. Joan behera, eta sakatu berrespen-tekla, hartzaileen zerrenda irekitzeko.
5. Hautatu <**Aukerak**> → **Kontaktuak**, kontaktuen zerrenda irekitzeko.
6. Joan kontaktu batera, eta sakatu berrespen-tekla.

7. Behar izanez gero, hautatu zenbaki bat.
8. Kontaktuak hautatzen amaitutakoan, sakatu <**Auke**.>, hartzaileen zerrendara itzultzeko.
9. Hartzaileak gordetzeko, sakatu berrespen-tekla.
10. Joan behera eta idatzi bidaltzailearen izena.
11. Sakatu <**Gorde**> → <**Onartu**>.

## Gezurrezko deiak egitea

Gezurrezko dei bat jaso duzun itxurak egin ditzakezu gogokoak ez dituzun bileretatik edo elkarrizketetatik irteteko. Telefonoz hitz egiten ari zaren itxurak ere egin ditzakezu, aldez aurretik grabatutako ahots bat erreproduzituta.

### Ahots bat grabatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Aplikazioen konfigurazioa** → **Dei faltsua**.
2. Sakatu **<Aukerak>** → **Editatu.**
3. Grabatzen hasteko, sakatu <**Grabatu**>.
4. Mikrofonotik hurbil hitz egin.
5. Hitz egiten amaitutakoan, sakatu behera nabigazio-tekla.
6. Sakatu <**Ezarri**>, grabazioa dei faltsuaren erantzun gisa ezartzeko.

### Gezurrezko dei bat egitea

Gezurrezko deiak egiteko, laster-tekla bat konfiguratu behar duzu. ▶ 28. or. Gezurrezko deia egiteko:

- Modu inaktiboan, luze sakatu laster-tekla.
- Telefonoa itxita eta teklak blokeatuta daudenean, sakatu laster-tekla lau aldiz.

# Ahots-oharrak grabatzea eta erreproduzitzea

Ikas ezazu telefonoaren ahots-grabagailua erabiltzen.

## Ahots-ohar bat grabatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Ahots grabagailua**.
2. Grabatzen hasteko, sakatu berrespen-tekla.
3. Ahots-ohar bat grabatzeko, hitz egin mikrofonotik hurbil.
4. Hitz egiten amaitutakoan, sakatu behera nabigazio-tekla.

## Ahots-ohar bat erreproduzitzea

1. Ahots-grabagailuaren pantailan, sakatu <**Aukerak**> → **Nire ahots klipak**.
2. Hautatu fitxategi bat.
3. Erabili tekla hauek erreprodukzioa kontrolatzeko:

| Tekla | Funtzioa |
|---|---|
| Berrespen-tekla | Erreprodukzioa gelditzen edo berrabiarazten du. |
| ▲/▼ | Bolumena igotzen edo jaisten du |
| Nabigazio-tekla | • Ezkerrera: hurrengo fitxategira joateko edo fitxategi berean aurrera egiteko balio du (luze sakatuta).<br>• Eskuinera: hurrengo fitxategira joateko edo fitxategi berean aurrera egiteko balio du (luze sakatuta)<br>• Behera: erreprodukzioa eteteko aukera ematen du. |

## Sarean argazkiak eta bideoak ikustea

Ikas ezazu blogetara eta webguneetara sartzen, argazkiak eta bideoak trukatzeko.

Lurraldearen eta zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke funtzio hori eskuragarri ez egotea.

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Sare sozialak**.
2. Hautatu ikusi nahi duzun helburu bat.
3. Sartu erabiltzailearen IDa eta helburuko pasahitza (beharrezkoa bada).

## Java aplikazioak eta jokoak erabiltzea

Ikas ezazu Java teknologia sarituaren jokoak eta aplikazioak erabiltzen.

Baliteke Java fitxategien deskarga bateragarria ez izatea, telefonoaren software-motaren arabera.

### Jokoak edo aplikazioak deskargatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Jokoak eta gehiago** → **Joko gehiago**.

   Zerbitzu-hornitzaileak aurrez ezarritako webgunera konektatuko da telefonoa.
2. Bilatu joko bat edo aplikazio bat, eta deskargatu telefonoan.

### Jokoak erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Jokoak eta gehiago** → **Nire jokoak**.
2. Hautatu joko bat zerrendan eta segitu pantailako jarraibideei.

Eskuragarri dauden jokoak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera. Jokoen kontrolak eta aukerak aldatu egin daitezke.

## Aplikazioak abiaraztea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Jokoak eta gehiago** → aplikazio bat.
2. Sakatu **<Aukerak>** aplikatzeko aukera eta konfigurazio ugariko zerrendara sartzeko.

# Munduko erlojuak sortzea eta bistaratzea

Ikas ezazu beste hiri bateko ordua ikusten eta munduko erlojuak konfiguratzen, pantailan ager daitezen.

## Munduko erloju bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Munduko ordularia**.
2. Sakatu **<Aukerak>** → **Gehitu**.
3. Joan ezkerrera edo eskuinera, ordu-eremu batera.
4. Udako ordutegia definitzeko, joan behera, eta sakatu berrespen-tekla.
5. Sakatu <**Gorde**>, zure munduko erlojua sortzeko.

   Bigarren erloju gisa konfiguratuta dago munduko erlojua.
6. Munduko erloju gehiago gehitzeko, errepikatu 2-5 urratsak.

## Pantailan munduko erloju bat gehitzea

Erloju dualaren moduan, pantailan bi ordu-eremutako bi erloju ikus ditzakezu. Munduko erlojuak sortu ondoren:

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Munduko ordularia**.
2. Joan gehitu nahi duzun munduko erlojura, eta sakatu <**Aukerak**> → **Ezarri bigarren mailako ordulari gisa**.
3. Sakatu <**Atzera**> bi aldiz.
4. Menuen moduan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila eta argiztapena** → **Hasierako pantaila**.
5. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Irudiak**-era (beharrezkoa bada).
6. Hautatu **Ordularia**.
7. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Duala**-ra.

8. Joan behera, eta, gero, joan ezkerrera edo eskuinera, erloju-mota duala hautatzeko.
9. Sakatu <**Ezarri**> → **Gorde**.

## Alarmak konfiguratzea eta erabiltzea

Ikas ezazu gertaera garrantzitsuetarako alarmak konfiguratzen eta kontrolatzen.

### Alarma berri bat konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Alarmak.**
2. Joan alarma huts batera eta sakatu berrespen-tekla, edo sakatu <**Aukerak**> → **Alarma sortu.**
3. Definitu alarmaren xehetasunak.
4. Sakatu <**Gorde**>.

Telefonoa itzalita badago, automatikoki pizteko funtzioarekin, telefonoa automatikoki pizten da, eta ezarritako orduan jotzen du alarmak.

### Alarma bat geldiaraztea

Alarmak jotzean:

- Sakatu edozein tekla alarma geldiarazteko eta gehiago ez jotzeko.
- Sakatu **<Baieztatu>** edo berrespen-tekla alarma gelditu eta ez errepikatzeko, edo sakatu <**Atzeratu**> alarma isilarazteko errepikapen-aldian.

### Alarma desaktibatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Alarmak.**
2. Joan desaktibatu nahi duzun alarmara, eta sakatu berrespen-tekla.
3. Joan behera (beharrezkoa bada).
4. Joan ezkerrera edo eskuinera, **Desaktibatuta**-ra.
5. Sakatu <**Gorde**>.

## Kalkulagailua erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Kalkulagailua**.
2. Erabili pantailako kalkulagailuaren teklak oinarrizko matematika-eragiketak egiteko.

## Moneta edo neurriak bihurtzea

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Bihurgailua** → bihurketa-mota bat.
2. Idatzi dibisak edo neurriak eta unitateak dagozkien eremuetan.

## Atzera kontatzeko tenporizadore bat konfiguratzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Tenporizadorea**.
2. Sakatu <**Ezarri**>.
3. Jarri atzera-kontaketa egiteko denbora, eta sakatu <**Onartu**>.
4. Pulse la tecla de confirmación para comenzar o pausar la cuenta atrás.
5. Tenporizadoreak amaitzean, sakatu <**Irten**>, alerta geldiarazteko.

## Kronometroa erabiltzea

1. Menuen moduan, hautatu **Aplikazioak** → **Kronometroa**.
2. Pulse la tecla de confirmación para comenzar y grabar tiempos de circuito.
3. Sakatu **<Berr>** grabatutako orduak ezabatzeko.

## Zeregin berri bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Ataza**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Sortu**.
3. Idatzi zereginaren xehetasunak.
4. Sakatu **<Gorde>**, edo sakatu **<Aukerak>** → **Gorde**.

## Testu-ohar bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Memoranduma**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Sortu**.
3. Idatzi oharraren testua, eta sakatu berrespen-tekla.

## Egutegia administratzea

Ikas ezazu egutegiaren ikuspegia aldatzen eta gertaerak sortzen.

### Egutegiaren ikuspegia aldatzea

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Egutegia**.
2. Sakatu **<Aukerak>** → **Honen arabera ikusi** → **Eguna** edo **astea**.

### Gertaera bat sortzea

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Egutegia**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Sortu >**ekitaldi-mota bat.
3. Idatzi ekitaldiari buruzko informazioa, beharrezkoa dena.
4. Sakatu **<Gorde>**, edo sakatu **<Aukerak>** → **Gorde**.

### Gertaerak ikustea

Data jakin bateko gertaerak ikusteko:

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Egutegia**.
2. Hautatu data bat egutegian.
3. Hautatu ekitaldi bat xehetasunak ikusteko.

Gertaerak motaren arabera ikusteko:

1. Menuen moduan, hautatu **Antolatzailea** → **Egutegia**.
2. Sakatu <**Aukerak**> → **Gertaeren zerrenda** gertaera-mota bat.
3. Hautatu ekitaldi bat xehetasunak ikusteko.

# Arazoen konponketa

Zure telefono mugikorrarekin arazoren bat baduzu, egiaztatu arazoak konpontzeko prozedura hauek zerbitzuaren profesional batekin harremanetan jarri aurretik.

## Zure telefonoa piztean edo erabiltzen ari zarela, kode hauetako bat sartzeko eskatzen zaizu:

| Kodea | Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten: |
|---|---|
| Pasahitza | Telefonoa blokeatzeko funtzioa aktibatuta badago, telefonoari ezarri zenion pasahitza idatzi behar duzu. |
| PINa | Telefonoa lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hau desaktibatzeko, erabili **PIN blokeoa** menua. |
| PUK | SIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea. |
| PIN2a | PIN2 eskatzen duen menu batera sartzean, zure SIM txartelaren PIN2 kodea sartu behar duzu. Xehetasun gehiago izateko, kontsulta egin zure zerbitzu-hornitzaileari. |

## Telefonoak SIM txartela sartzeko eskatzen dizu.

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala jarrita dagoela.

### Telefonoan hau agertzen da: “Zerbitzua ez erabilgarri” edo “Ez egin.”.

- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.
- Aukera batzuetara ezin da sartu harpidetu gabe. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

### Zenbakia idatzi duzu, baina deia ez da gauzatzen.

- Egiaztatu markaketa-tekla [ ] sakatu duzula.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

### Beste pertsona batek deitu dizu, baina ezin du zurekin harremanetan jarri.

- Ziurtatu telefonoa piztuta dagoela.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

### Deitu duen pertsonak ezin dizu entzun.

- Ziurtatu ez zarela ari mugikorraren mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu telefonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailua erabiltzen baduzu, ziurtatu behar bezala konektatuta dagoela.

### Telefonoak soinu bat egiten du, eta bateriaren ikonoa keinuka ari da.

Materia-maila baxua du. Kargatu bateria edo jarri beste bat telefonoa erabiltzen jarraitzeko.

### Deiaren soinuaren kalitatea eskasa da.

- Egiaztatu ez duzula blokeatzen telefonoaren barneko antena.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

### Deitzeko kontaktu bat hautatu duzu, baina deia ez da gauzatzen.

- Ziurtatu kontaktuen zerrendan gordetako telefonoa zuzena dela.
- Behar izanez gero, idatzi eta gorde berriro zenbakia.

### Bateria ez da behar bezala kargatzen edo telefonoa batzuetan bakarrik itzaltzen da.

- Baliteke bateriaren terminalak zikinak egotea. Garbitu urre koloreko kontaktuak zapi garbi eta leun batekin, eta saiatu bateria berriro kargatzen.
- Bateria osoa kargatzen ez bada, bota bateria zaharra behar bezala eta jarri berri bat.

### Telefonoa beroa dago.

Aldi berean aplikazio asko erabiltzen badituzu, gailuak energia gehiago behar du, eta baliteke berotzea.

Hori normala da, eta ez luke eraginik izan behar telefonoaren iraupenean edo errendimenduan.



# Aurkibidea




ahots-oharrak
- erreproduzitu 53
- grabatu 53

alarmak
- desaktibatu 56
- gelditu 56
- sortu 56

argazkiak
- atera 33
- ateratzeko modu aurreratua 43
- ikusi 33

atzerako kontaketaren tenporizadorea

bateria
- bateria baxuaren adierazlea 21
- instalatu 19
- kargatu 21

bideoak
- grabatu 33
- ikusi 33

bihurgailua
- bihurgailua
- tresnak kontsultatu,

blokeatu
- ikus telefonoaren blokeoa

Bluetooth messenger-a 42

Bluetooth-a
- aktibatu 49
- datuak bidali 50
- datuak jaso 50

bolumena
- deiaren bolumena 29
- teklen tonuaren bolumena 27

Deiak
- agendatik, 39
- azkena markatutakoak 37
- dei anizkoitzak, 38
- dei gehigarriak egin 38
- dei gehigarriak erantzun 38
- egin 28
- elkarrizketak grabatu 29
- erantzun 29
- ez onartu 39
- funtzio aurreratuak 37
- galdutako deiak ikusi 37
- galdutako deiak markatu 37
- gezurrezko deiak egin 52
- nazioarteko zenbakiak 39
- oinarrizko funtzioak 28
- zain dauden deiak berreskuratu 38
- zain jarri, 38


d

egutegia
egutegia
tresnak kontsultatu,

entzungailuak 29

FM irratia
entzun 34
kateak gorde 48

Fring mezularitza 42

gaia 28

gezurrezko deiak
deiak ikusi, gezurrezko deiak egin

horma-papera 27

Internet
ikus web-nabigatzailea

irratia
ikus FM irratia

Java
aplikazioak deskargatu, 54
aplikazioetara sartu, 55
jokoak hasi, 54

kalkulagailua
kalkulagailua
tresnak kontsultatu,

kontaktuak
bilatu 32
gehitu 32
taldeak sortu 40

kontaktu-txartelak 40

kronometroa
kronometroa
tresnak kontsultatu,

larrialdi-mezua 50

lasterbideak 28

lasterbideen teklak
lasterbideak ikusi

lineaz kanpoko profila 24

melodia 27

memoria-txartela 22

Mezuak
berehalako mezuak bidali (Bluetooth mezularitzako zerbitzua) 42
berehalako mezuak bidali (Fring mezularitzako zerbitzua) 42
mezu elektronikoa bidali 30
multimedia bidali 30
multimedia ikusi 32
posta elektronikoa ikusi 32
testua ikusi 32

mugikor-bilatzailea 51

Multikonferentzia
deiak ikusi, multikonferentzia

Multimedia
ikus mezuak

munduko erlojua
- konfiguratu pantaila duala 55
- sortu 55

musika bilatu 48

musika-erreproduzitzailea
- erreprodukzio-zerrendak sortu 47
- musika entzun 34
- pertsonalizatu 47

Nabigatzailea
- ikus web-nabigatzailea

oharra
- testu- edo ahots-oharrak ikusi

profil isila 27

Samsung PC Studio 46

Sare sozialak
- ikus tresnak, mobile blog

SIM txartela 19

teklen tonuak 27

telefonoa blokeatu 28

tenporizadorea
- tresnak ikusi, atzerako kontuaren tenporizadorea

testua
- mezuak 30
- oharrak sortu 58
- sartu 30

tresnak ikusi, atzerako kontuaren tenporizadorea

tresnak
- alarma 56
- atzerako kontaketaren tenporizadorea 57
- bihurgailua 57
- egutegia 58
- kalkulagailua 57
- kronometroa 57
- mobile blog, 54
- zeregina 57

txantiloiak
- multimedia 41
- testua 41
- txertatu 41

web-nabigatzailea
- hasierako orria hasi 35
- markatzaileak gehitu

Zeregina
- tresnak ikusi, zereginak

AMSUNG
LECTRONICS

# Adostasun-deklarazioa (R&TTE)

**Guk,** Samsung Electronics enpresak, gure erantzukizunaren pean aitortzen dugu

## GSM : GT-B3310 telefono mugikorrak

(hain zuzen ere, mugikor horri dagokio deklarazio hau) estandar hauek eta beste arautegi batzuk betetzen dituela:

| | |
|---|---|
| Segurtasuna | EN 60950-1 : 2001+A11:2004 |
| EMC | EN 301 489-01 V1.6.1 (09-2005) |
| | EN 301 489-07 V1.3.1 (11 -2005) |
| | EN 301 489-17 V1.2.1 (08-2002) |
| SAR | EN 50360 : 2001 |
| | EN 62209-1 :2006 |
| Radio | EN 301 511 V9.0.2 (03-2003) |
| | EN 300 328 V1.7.1 (10-2006) |

Honen bidez deklaratzen da [oinarrizko irrati-probak egin direla eta] aurrez aipatutako produktuak betetzen dituela 1999/5/EE Direktibaren oinarrizko eskakizunak.

1999/5/EE Direktibaren 10. artikuluan eta [IV.] eranskinean aipatutako adostasun-balorazioaren prozedura jakinarazitako erakunde hauen parte-hartzearekin egin da:

BABT, Balfour House, Churchfield Road, Walton-on-Thames, Surrey, KT12 2TD, Erresuma Batua*. Identifikazio-marka: 0168Dokumentazio teknikoa hemen dago:

Dokumentazio teknikoa hemen dago: **CE0168**

**Samsung Electronics QA Lab.**

eta aurrez eskatuta emango da.

(Representante en la UE)

Samsung Electronics Euro QA Lab.
Blackbushe Business Park, Saxony Way,
Yateley, Hampshire, GU46 6GG,
Erresuma Batua*

2009.07.07 **Yong-Sang Park / S. Manager**

(igorpen-lekua eta data) (pertsona baimendunaren izena eta sinadura)

* Hori ez da Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren Zentroa. Samsung-en Zerbitzu Teknikoaren helbidea edo telefono-zenbakia jakin nahi baduzu, begiratu berme-txartelean edo galdetu telefonoa erosi zenuen dendan.

euskaltel

2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria

Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008